

Esan dezagun 'Urkiza'...

ESAN dezagun 'Urkiza', zeren eta euskal historiografian gertakari bikain baten aurrean baikara, orainxte. Kaleratu berria da 'Elizaren historia Euskal Herrian. 1. Ikerlan materialak', Julen Urkiza karmeldarrek prestatu eta idatzia (1995, Larrea: Karmel). Urre gorriko liburu baten aurrean gaude, eta euskal historizaleok badugu arrazoirik poz gozotan izateko.

Elizaren historiari begira egindako lana da hau, baina izenezko muga horiek izanez ondotoxo ere gaitzintzen dituen. Historiari edozein lanen aurretik egin ohi den galde 4ra soil bati bere orokorrean erantzuteko prestatutako argitalpen erraldoia: *Non bilatu behar du historialariak euskal historia?*

Galdera xume horri ihardespina emateko ia 1.500 orrialdetako lana burutu du Urkizak. Ikerlan material hauek hiru atal nagusitan banatu dira liburuan: 1. Bibliografia, liburu eta artikuluen zerrenda alfabetikoa eman da (25-476. or.). 2. Artxibo eta ikerztaileak, eta gaiez gai eskura izan dezakegun historiografia, multzoa (481-1198). 3. Artxiboetatik bildutako agiri-zerrenda hautatua (1199-1459).

Honelako lanak nahitaez ditu hutsune eta akatsak, eta obra honek ere bai (segur naiz, autoreak berak dakielako hiri ongien); baina argitalpen honekin euskal historizaleoi eskaintzen zaigun zerbitzua hain da funtsezkoa, hain baliozkoa, non eskergaitzokoa izatea ere balitzateke hemen orain hika-mika ziztrinietan jardutea. Lerro hauek, ba, argitalpena txalotzeko idazten ditut, langile sinestezin honi eskerrak emateko. Jarrita dago hurrengo zeregin askotarako lehen 'oin-haria'.

Egia da, Euskal Herriaren ikuspuntu mugatu batetik behatuz ari dela biltzen Urkiza gure historiografia, baina egia da ere, hori bera zabaltasunik handienarekin egin duela, eta orain-oraingoz Euskal Herriko historiografiaren bilketa eta bilduma sistematzatu osoenak jartzen dizkigula eskuetan.

Obra honen aurrean, bizpahiru alde dira era berezian postu nautenak: erbesteko bibliografiatik gurrera egindako ekarriak, Euskal Herria 'unitate historiko' bezala hartzeak, eta obra osoa bere bikaintasunean euskaraz eman izanak.

Erbesteko ekarpenak: Ipar-Hegoaldeak

Euskal Herria eta hemengo Eliza ez dira inguruetako historiografian gutzit arotzak izan, eta batez ere eliz historiografian, zegoen lekua-edo eman izan zaie. XIX. mendera arteko historian —baita historia zibilean ere— horrek sortu duen informazio-altorra bazterrezina da euskal historia osorako ere.

Bibliografia eta aipamenetan, erbesteko 333 aldizkari eta liburu-bildumetatik jasotzen dira aipauk: Frantzia-Espainietakoetatik, noski, baina baita Ingalaterra, Alemania, Italia, Belgika nahiz Holandakoetatik ere.

Bibliografiako zerrenda luzean (11.000 titulu bildurik daudela dio autoreak), atzeritarren ekarpena erabakiorra da gure euskal historiografiaren balantzea egitean. Ofizioan dabilenak daki, nekearen poderioz jakin ere, gureaz diharduen historiografia

frantsesa (eta ez naiz Iparraldeaz ari, noski) zein eskuragaitza suertatzen zaigun, izan ere estatuarteako muga politikoez, bestelako mugarik ere sortzen baitute (kulturalak, akademikoak, etab.).

Geure ikerkuntzaren jabe ez izateak ezarri dizkigun pobrezien artean, gogorarazi behar da, ondoan eta etxean ditugun bi Estaturen iker-politikek eta tradizio kulturalak gure historia ere aztertutik dutela, eta bibliografia aberats eta baliagarria sortu dela Euskal Herriaz Espainian eta Frantzian. Ikastunarentzat erraza izan liteke, noski, norbera bizi den Estatu-barekoea ezagutzea, baina urrunago geratu izan zaigu, oro har, aukero Estatuokoren berriak era berean eskuratzea.

Erbestetako informazio-ahalegin hori premiazkoa da, zeren eta gure Historia ezin daiteke izan gureaz guk geuk dioguna bakarri. Horretaz jabetuta egin du bere bildulana Urkizak; hori, bai, premia horren kontrako alde ere gogoan duela: inguruetako eta Estatu-alde bakar nahiz bietako mundu akademikoak ere ez dira aski. Gu geu gara lehenengo gure historiaren oroimena landu behar dugunak, Iparraldean eta Hegoaldean, eta guztiok elkarren berri jakinki. Hemen, liburu honetan, tradizio historiografiko horiek guztiak egon nahi dute batera.

XVIII. MENDETIK GAUR- DAINO ZUTIK IRAUN DUEN HISPANIA SACRA-REN ONDOAN, HASI DA KALERATZEN VASCONIA SACRA ERE.

Baina nonahitik etor litezkeen argibideak eskura izan aren, beti dago historialariarentzat eginkizun guztien aurreko galdera itogarri bat: Posible al da, gero, zuzenetsita ote dago, *Euskal Herriaren Historia* bat?

Euskal Herria, aztergai historiko

Urkiza-ren liburuak azpi-azpian eztabaidatu gabeko arazo hori dakar plaza, tamaina honetako lanak elkidin ezina: *Euskal Herria*, horrela bere osotasun-batasunetan, unitate historiko aztergarria ote da, historialariaren hermeneutika jator baten barruan?

Historiari teoriko handiek behin baino gehiagotan gogorarazi izan ditute 'historia orohartzaile' (global) baten premia, eta inoiz ongi ahalegindu ere egin dira, Estaturen mugetatik at, edozein baruti dela ere, mundu zabalagoetara iristen. Testuinguru horretan, Braudel frantsesak beti lileratu izan nau Felipe II.ari bere Mediterraneoa bilatu zionean, baina hau ere, munduko zibilizazio

handietaraino iritsi ondoren, azkenik Frantzia esplikatzera bildu zitzaigun.

Gure inguruetako zientzia historikoak, eskerki, kontzientzi arazo handirik gabe erosenari heldu izan dio: Estaturen barrutia —diogun, Espainia nahiz Frantzia— espazio 'duina' izan da historia egin ahal izateko. Hau da, Estatek beren barrutia *unitate historiko aztergarri* bihurtu izan dute mundu akademikorako ere, kalean ezezik ikastunen kaskoetan ere. Eta, bere praxian, apenas inork jarri duen zalantzan mugaketa historiografiko hori.

Eskubide ausart berarekin, Urkizak Euskal Herria hartu du, ongi kontzientzi hartu ere, bere lan historiografiko eredugarriaren 'sujet' bezala, bidezko azterkizun historiko bakan eta ireki gisa. Ofiziokontziaz egindako honelako liburuan estimatzekoa da Euskal Herriaren nortasun historiografikoa aitortzen duen argitasun profesional hau. Hortaz, autorearentzat zentzuzko aztergai historikoa da Euskal Herria ere.

Euskarazko ekarpena

Esandakoekin batera, bistan dago historiografiaz kanpoko beste balio kulturala daskargitula obra honek: molde honetako histori lan batean lehenengo aldiz erabaki du autore batek dena euskaraz ematea. Erabaki hori, eguneroko pragmatismotik harago doana da. Gaizki ez banago, autorea ohar-tuta zegoen bere lanaren balioaz eta bezeriaren erdaltasunaz, eta, ondorioz, ez zitzaion falta arrazoirik, lanari erdaraz ekiten. Hala ere, euskaraz aurkeztu digu dena.

Euskara eta Unibertsitatea, Euskal Unibertsitatea eta abar, berriro ere eztabaidagai ditugunean, Urriaz-ren deliberamendu hau apaltasunetik eta komentzimendu personal seriotatik hartua izan da, noski. Ikertzaileak honelakoetan ukitzen ditu —laster batean ukitu ere— bere hizkuntza gutxiutuaren hesi mingarriak.

Etorkizunean euskalgintzan Euskal Unibertsitateak zein bide hartuko duen ez bada-kigu ere, jokamolde hauek indartu beharra gongo da. Zorionez, dagoeneko XX.eko gure historia kulturalak badu horretan etsenplu onik ere: adibidez, euskalariek beren lanetan burutu berri duten euskalduntzea da kasu bat. Kampion, Azkue edo Urkizok erdaraz egin zuten lan bera, baina ikusi besterik ez dago Euskaltzaindiaren *Euskera* nola euskaldundu zaigun azken hiru hamarkadetan.

Urkizak historiografian heldu dio erronka berari: arrazoi praktikoak kontra zituela (hizkuntzaren orrazketak ekarri dion atzerapena aipatzen du idazleak) eta komertzialak zer esanik ez, hala ere aurrera egin du euskarazko hautapen horretan. Euskaltzaleon izenean eskerrona baizik ez du merezi.

XVIII. mendetik gaurdaino zutik irau duen *Hispania Sacra*-ren ondoan, hasi da kaleratzen *Vasconia Sacra* ere. Hasitakoak izango al du segidarik, ez inoren urratsak beste gabe segitzeko, baliozko lan handi honen merezi zinez merezi duelako baizik.

JOSEBA INTXAUSTI
HISTORIALARIA



JORDI PUJOL
Generalitateko lehendakaria - DIE ZEIT

«Esan daiteke Kalunia aldi berean hau guztia dela: Bavaria hizkuntza propioarekin, Quebec separatismorik gabe eta Euskal Herria terrorismorik gabe»



CASPAR WEINBERGER
Estatu Batuetako Defentsa idazkaria ohi - EL PAIS

«Estatu Batuek Bosniari buruz duten jarrera lotsagarria da. Guztiz lotsagarria!»



JOSE BELL LARA
Kubako unibertsitate irakaslea - EGIN

«Kubatarrok bada-kigu nora goazen»



THEO ALCANTARA
Orkestra zuzendaria - EL CORREO

«Ertaz justifika daiteke Bilbok sinfoniko baten beharra daukala»

ZAKILIXUT



© Olariagak